

LAN- PENTSIIO-BIZITZA DUINA

URTARRILAK 30 GREBA OROKORRA

EBAZPENAREN IZENBURUA

Lan- pentsio- bizitza-duinaren aldeko greba babesteko ebazpen proposamena.

ZIOA

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte-hartzaile baten bidez. Orduz geroztik eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditu.

Bestetik, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan “planto” egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

Orain, aipatu planteamenduaren haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia, lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.

Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira. Finean, bestelako eredu sozio-produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emanaz.

Ezarriak dituen ardatz nagusiekin bat egiten dugu, alegia: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka, jendartearen beharren arabera antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...).

Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat eginez, ondorengo ebazpen proposamena aurkezten dugu.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Horiek horrela, Zaldibiako Udalak:

- 1.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko grebari bere atxikimendua adierazi nahi dio.
- 2.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskainiko dizkie Erakundeko langileei.
- 3.- Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat egiten du, eta horregatik:

3.1. Madrilen osatuko den Gobernuari eskatzen dio:

- 2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsio-murrizketak indargabetzea.
- Zapateroren eta Raxoiren lan-erreformak bertan behera uztea.
- Presazko izaeraz Seguritate Sozialaren eta Enplegurako Politika Pasiboan gaineko eskumenak ransferí ditzala.

3.2. Gasteizeko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die:

- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaeraz ezar ditzatela.
- Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak abiatu ditzatela.
- Hitzarmen kolektiboetan ultraktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenen aplikazioa estatu mailako hitzarmenen gainera lehenetsiak izan daitezzen sustapen lana burutu dezatela.
- Lanera bizirik itzultzeko eskubidea bermatzea.
- Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europar Batasunekoekin parekatu arte, eta lan-istripuen eta laneko gaitortasunen aurkako ekintza planak abiatzea.
- Lan-harremanetarako eta babes-sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiatzea.

3.3. Erkidego eta Lurraldeko Gobernuari eskatzen die:

- Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala eta pentsio-arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatu ditzatela.
- Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioan ematen den iruzurra zigortzea.
- Soldata gutxitu gabe lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiatzea.
- Bereziki emakumeei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.
- Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.
- Kontratazioan sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu-identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia-jardueraren arabera diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.
- Klausula sozialak ezartzea administrazioko kontratazio guztietan.

4.- Gure Erakundeak adostutako ebazpen hau Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Lurraldeko Gobernuari eta Euskal Herriko Karta Sozialari helaraziko zaie.

Zaldibia, 2020ko urtarrilaren 22an